



BOOKTEGI

Burges ttipien zazpi bekatu buruzagiak

BERTOL BRECHT

itzulpena: PATXI SALABERRI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

BERTOL BRECHT

**burges ttipien zazpi
bekatu buruzagiak**

itzulpena:
Patxi Salaberri

(BALLETA)

Burges ttipien zazpi bekatu buruzagiak

NAGITASUNA, bidegabekeria praktikatzean

HARROTASUNA, nork duen hoberenarena (burua ez saltzea)

HASERREA, bilaukeriaren aurrean

SABELDARRAIOTASUNA, (buru-askiestea, nahikoa dena baino ez jatea)

HARAGIKOITASUNA, (maitasun desinteresatua)

ZEKENTASUNA, lapurtzean eta engainatzean

INBIDIA, zoriontsu direnena

HITZAURREA

Balleta Ipar Ameriketako hegoaldeko Estatuetakoko bi ahizpen bidaia baten antzezpenean izan behar da. Ahizpa horiek etxetxo bat eraikitzeko behar den dirua lortu nahi dute eurentzat eta familiarentzat. Biei deritze ANNA. Bata enpresaria da eta artista bestea; bata (ANNA I) saltzen duena da, bestea (ANNA II) merkantzia. Eszenatokian zazpi hiritan barreneko bira marrazturik duen arbel txiki bat dago eta, haren aurrean, ANNA punteroarekin. Eszenatokian etengabe aldatuz doan merkatua ere ageri da, eta ANNA lek behin eta berriro igortzen du hara bere ahizpa. Zazpi bekatu buruzagiak nola ekidin erakusten duten koadroetako bakoitzaren amaieran, ANNA I dagoen lekura itzultzen da ANNA II, eta eszenatokian Luisianako familia agertzen da: AITA, AMA eta BI SEME. Haien atzean jasoaz doa etxetxoa, zazpi bekatu buruzagiak egitetik begiratzean lortua.

ANNA I

Luisianakoak gara ahizpa eta biok,
Missisippiren urak ilargiaren azpian jario diren lurraldekoak,
Abestien bitartez dakikezuenez,
Eta hara itzuli nahi dugu egunen batean
Hobe gaur bihar baino.

ANNA II

Hobe gaur bihar baino!

ANNA I

Duela lau aste abiatu ginen
Hiri handietarantz, zoria tentatzera
Eta zazpi urtetan, ustez, lortuko dugu
Eta orduan itzuliko gara.

ANNA II

Baina hobe seitan bada!

ANNA I

Zeren gurasoak eta bi anaia baititugu zain Luisianan,
Irabazten dugun dirua igortzen diegu,
Eta diru horrekin etxetxo bat eraikiko dute
Etxetxo bat Missisippiren ondoan, Luisianan.
Ez al da hala, Anna?

ANNA II

Bai, Anna.

ANNA I

Ene ahizpa polita da, ni praktikoa naiz.
Ene ahizpa zertxobait erotua dago, ni zuhurra naiz.
Egia esan, ez gara bi pertsona
Bakar bat baizik.

Bioi derizku Anna,

Iragan bat eta etorkizun bat ditugu,
Bihotz bat eta aurrezki-libreta bat,
Eta gutako bakoitzak bestearentzat hoberena baino ez du egiten.
Ez al da hala, Anna?

ANNA II

Bai, Anna.

1 – NAGITASUNA

Hau da haien bidaiako lehen hiria eta, lehendabiziko dirua lortu ahal izateko, amarru bat darabilte ahizpa biek. Hiriko parkean barrena dabiltzalarik, senar-emazteak bilatu dituzte. ANNA II SENARRAREN gainera abiatu da, ezagutuko balu bezala; besarkatu du, kexak aurpegiratu dizkio, etab. Hitz gutxitan, lotsarazi egin du, ANNA I bigarren planoan geratu den bitartean. Orduan EMAKUMEAREN kontra oldartu da ANNA II, guardasolarekin mehatxatuz, eta bitartean ANNA lek dirua eskatu dio senarrari ahizpa aldentzearen truk. Hainbatetan erabili dute amarrua, oso azkar guztietan. Gero, halere, gertatu da ezen, ahizpa bitartean emakumeari enbarazu egiten ibiliko zaiolakoan, ANNA lek emaztearengandik urrunarazi duen senar bati dirua atera nahi izan diola; izaturik, baina, ikusi du ahizpa, lanean aritu beharrean, banku batean eseri eta lokartu egin dela. ANNA lek iratzarri egin behar izan du eta lanera bultzatu.

FAMILIA

Menderatuko ahal du gure Annak bere burua!

Beti izan baita eroso eta arraro samarra.

Eta ez bagenuen ohetik ateratzen

Ez zegoen goizean jaikiarazteko modurik

Eta guk beti esaten genion:

–Anna, nagitasuna da bizio guztien ama!

Bestalde, oso neska zuhurra da gure Anna,

Obediente eta otzana gurasoekiko.

Eta horregatik espero dugu

ez zaiola faltako atzerrian nahitaezko prestasuna.

–Nagitasuna da bizio guztien ama!

Jainkoak argi ditzala gure seme-alabak,

Oparotasunera daraman bidea ezagutu dezaten.

Hark ematen dizkie indarra eta alaitasuna

Legearen aurka bekatu egin ez dezaten.

Horrek egiten gaitu aberats eta zoriontsu.

2 – HARROTASUNA

Kabaret txikia eta likitsa. ANNA II eszenan sartu da, itxura beldurgarriagatik izutu egin duten laupabost BEZEROn txaloen artean. Xume jantzita dator, baina oso originala den zerbait dantzatu du; ahal duen hobekien egin du, baina arrakastarik gabe. Bezeroak guztiz aspertu dira, marrazoen antzera aharrastuen ari dira (haien maskarek hortz ikaragarriak erakusten dituzte ahotzarren barruan), gauzak bota dituzte eszenategira eta halako batez lanpara bakarra ere hautsi dute. ANNA IIk, bere arteari gogoz lotua, dantzatzen segitu du, harik eta JABEAk eszenatokitik atera duen arte. Beste dantzari bat igoarazi du, SORGIN gizen bat, ANNAri txalotua izateko nola jardun behar duen erakutsi diezaion. Sorginak era arrunt eta lizun batean egin du dantza, eta txalo ikaragarriak bildu ditu. ANNAk ez du horrela dantzatu nahi. Halere, ANNA I, eszenatokiaren ondoan zutik, hasieran ahizpa txalotu duen bakarra izan da; gero haren porrota, negarrez, ikusita, eskatu dioten bezala dantzatera animatu du. Gona erauzi dio, luzeegia baitzen, eta eszenatokira igoarazi du ahizpa berriro ere. Han dantza egiten irakutsi dio sorginak, ikusleen txaloen artean gona gehiago jazo dion bitartean. ANNA I da ahizpa abaildua berriz arbeltxoraino lagunduko duena, kontsolatzeko.

ANNA I

Baina horniturik geundenean,
Barneko arropa, soinekoak eta kapelak genituenean,
Dantzari-lana aurkitu genuen kabaret batean,
Memphisen, gure bidaiaren bigarren hirian.

Ai, ene, ez zen erraza izan Annarentzat.
Soinekoek eta kapelek harro bilakatzen dute neska.
Tigreek edaten dutenean,
Begira zaitez uretan,
Arriskutsu bilakatzen baitira maiz!

Eta hartara, artista bilakatzea nahi izan zuen,
Eta artea egin nahi izan zuen kabaretean,
Memphisen, gure bidaiaren bigarren hirian.
Eta ez zen hori jendeak harengandik nahi zuena.
Ez da hori jendeak nahi duena.

Zeren jende horrek ordaindu egiten du eta nahi izaten du,
Diru truk, zerbait erakutsi diezaioten.
Eta neskak bere biluztasuna arrain ustel gisa ezkututzen badu,
Ezin du inongo txalorik itxaron.

Hortaz, seriotan esan nion ahizpari: “Anna,
Harrokeria jende aberatsarentzat da.
Egin ezazu eskatzen dizutena eta ez
Zuk haiek esatzea nahi izango zenukeena”.

Gau askotan ahalegindu behar izan nuen.
Ez zen batere erraza haren urguilua deuseztatzea!
Eta kontsolatu egiten nuen eta esan:
“Pentsatu Luisianako etxean!”.
Eta orduan berak esaten zuen: “Bai, Anna”.

FAMILIA

Jainkoak argi ditzala gure seme-alabak,
Oparotasunera daraman bidea ezagutu dezaten.
Bere burua menderatzen duenak
Saria ere jasotzen du jarraian.

3 – HASERREA

Estra edo figurante horietako bat da ANNA pelikula baten filmaketan. AKTORE nagusiak, Douglas Fairbanks irudiko gizona, zaldiarekin lore-otar baten gainetik egin behar du jauzi. Zaldia baldarra dela eta, aktoreak jipoitu egin du. Zaldia erori egin da eta, azpian burusia jarri eta azukrea eskaini dioten arren, ezin izan da zutitu. Orduan berriro jo du aktoreak. Une horretan FIGURANTE TXIKIA aurrerratu da sumindurik, eta zigorra eskutik kenduta xehatu egin du aktorea. Berehala kaleratu dute. Nolanahi ere, ahizpa hurbildu eta itzultzera behartu du eta baita aktorearen aurrean belauniko jartzera eta haren eskuan muin egitera ere. Eta orduan aktoreak zuzendariari gomendatu dio neska.

FAMILIA

Hau ez doa aurrera!

Bidaltzen dutena

Ez da etxe bat eraikitzeko adinakoa!

Guztia jaten dute haiek!

Burua garbitu behar zaie,

Bestela honek ez du aurrera egingo!

Abere ergel hauek igortzen duten dirua

Ez da etxe bat eraikitzeko adinakoa!

Guztia jaten dute haiek!

ANNA I

Orain bai, orain aurrera doa.

Los Ángeles-en gaude jadanik.

Eta figuranteari ate guztiak ireki zaizkio.

Orain ahalegintzen bagara

Eta huts egiten ez badugu,

Gelditu gabe joango gara gorantz.

FAMILIA

Jainkoak argi ditzala gure seme-alabak,

Oparotasunera daraman bidea ezagutu dezaten.

ANNA I

Bidegabekeriari aurre egiten diona

Inon ez dute maite,

Eta basakeriaren aurrean haserretzen dena

Oso goiz ehortziko dute.

Nola jasan ahal izango dute

Zitalkeria onartzen ez duena?

Errurik ez duena

Lurrean ordaindu beharko du hori.

Horregatik erauzi nion haserrea neure ahizpari

Los Ángelesen, gure bidaiaren hirugarren hirian.

Eta bidegabekeriaren aurkako gaitzespena ere erauzi nion,

oso garesti ordaintzen baita.

Beti esaten nion: "Mendera ezazu zeure burua, Anna,

Ongi baitakizu nora daraman menderatze faltak!"

Eta berak arrazoia emanez, honela esaten zidan:

ANNA II

Badakit, Anna.

4 – SABELDARRAIOTASUNA

ANNA orain izar bat da. Pisua mantentzera behartzen duen kontratua sinatu du eta, ondorioz, ezin du jan. Egun batean sagartxo bat ostu eta ezkutuan jan du, baina pisatzera joatean gramo bat gehiago eman du, eta ENPRESARIA ileetatik tiraka hasi da. Handik aurrera, ahizpak zaindu behar izan du jan bitartean. Bi MORROI errebolberdunek zerbitzatzen dute eta flaskotxo bat baino ezin izaten du hartu azpil handitik.

FAMILIA

Filadelfiako gutun bat dago:

Annari ondo doakio.

Orain irabazten ari da, azkenez.

Dantzari-kontratua sinatu du.

Hori dela eta, orain ez zaio uzten nahi duenean nahi duena jaten.

Zaila izango zaio hori gure Annari,

oso jatuna baita.

Kontratua beteko ahal du!

Filadelfian ez baitute hipopotamorik nahi.

Egunero pisatzen dute.

Ai, ene, gramo bat gizentzen bada!

Haiek argi baitute abiapuntua:

52 kilo erosi dituzte,

52 kio balio ditu.

Eta gainerakoa txarra da.

Baina gure Anna oso zentzuduna da.

Bera arduratuko da kontratuak kontratu izaten segi dezan.

Eta esango du: azken batez, jan, Luisianan jan dezakezu, Anna.

Kruasanak! Txahal-txuletak! Zainzuriak! Oilaskoa!

Eta ezti-bizkotxo horiek!

Pentsa ezazu Luisianako gure etxeaz!

Begira! Hazten ari da! Pisuz pisu hazten ari da!

Eutsi ezazu, bada: jatunkeria txarra da.

Itxaron, Anna,

Sabeldarriotasuna kaltegarria baita.

5 – HARAGIKOITASUNA

ANNak orain lagun bat du, oso aberatsa dena, maite duena eta jantziak eta bitxiak oparitzen dizkiona, eta badu baita ere maitale bat, bitxiak kentzen dizkiona eta Annak maite duena. ANNA lek aurpegiratu egin dio hori eta lortu du FERNANDOrengandik bereiz dadin eta EDWARDi leial izan dakion. Nolanahi ere, egun batean, kafetegi baten aurretik igarotzean, ANNA Ilk ikusi du bertan ANNA I FERNANDOrekin dagoela eserita, honek arrakastarik gabe seduzitu nahi duelarik. ANNA Ilk eraso egin dio ANNA Ii, eta kale erdian, EDWARDen eta haren lagunena eta kuxkuxero eta alprojen begien aurrean, borroka bizian aritu dira lurrian. Mutikoteek ANNAREN ipurdi xarmanta seinlatu diote elkarri, eta EDWARDek ihes egin du atsekabeturik. ANNA lek erantzukiak egin dizkio ahizpari eta EDWARDengana igorri du berriz ere, FERNANDOri agur hunkigarria egin ondoren.

ANNA I

Eta gizon bat aurkitu genuen Bostonen,
Ondo ordaintzen zuena, maitasunaren truk.
Eta arazoak izan nituen Annarekin, zeren
Maitatu bai, maitatu egiten baitzuen, baina beste gizon bat,
Eta ordaindu egiten zion, maitasunaren truk orobat.

Ai, ene!, esaten nion nik:

“Leiala ez bazara, erdia baino gutxiago balioko duzu.
Ez da hori hark beti berriztat ordaintzen duena,
Maitasun errespetagarria baizik!

Bakar-bakarrik jolas daiteke horrela
Inoren menpeko ez dena.
Barre egitekorik gabe dago
Bere egoera ahazten duena”.

Esan nion:

“Ez zaitetz bi aulkitan eseri!”
Eta hura ikustera joan nintzen gero.
Eta esan nion:
“Sentimentu horiek hondamendia dira nire ahizpa Annarentzat.

Bakar-bakarrik jolas daiteke horrela
Inoren menpeko ez dena.
Barre egitekorik gabe dago
Bere egoera ahazten duena”.

Nik, tamalez, maiz ikusten nuen Fernando.
Ez zegoen ezer gure artean –Tentelkeria halakoa!
Baina behin ikusi gintuen Annak, eta damurik,
Hura berehala oldartu zitzaidan.

FAMILIA

Ikas dezatela bidea
Oparotasunera daramana,
Aberats eta zoriontsu egiten gaituen
Legearen aurka egin ez dezaten!

ANNA I

Eta hark bere ipurdi zuria erakutsi zuen.
Edozein enpresa txiki baino baliotsuagoa da,
Baina hark dohainik erakutsi zien begiluze eta kalekumeei
Munduaren ikuskizun profanoa.

Beti gertatzen dira horrelakoak
geure buruaz ahazten garenean!
Hori bakarrik egin dezake
Inoren menpeko ez denak.

FAMILIA

Bere burua menderatzen duenak
Saria ere irabazten du jarraian.

ANNA I

O, zaila izan zen guztia konpontzea!
Fernandori adioa luzatu
Eta Edwardekin desenkusatu!
Eta gau luze haiek,
Ahizpa negarrez entzuten igaroak eta honako hau esaten:

ANNAIL

Ondo da horrela, Anna,
baina hain da zaila!

6 – ZEKENTASUNA

Handik gutxira, ANNAk erreka jotzera eraman du EDWARD, eta honek tiro bat bota dio bere buruari, eta egunkariak ANNAri buruzko artikulu laudagarriak argitaratu dituzte. Haren aurrean irakurleek errespetu handiz erantzi ohi dute kapela eta, egunkaria eskuan, segitu egiten diote, harik eta gero haiek ere erreka jotzera iristen diren arte. Denbora gutxiren buruan, ANNAk berdin-berdin larruturiko BESTE GAZTE batek leihotik jauzi egitean, ahizpak parte hartu eta urkatzera zihoan hirugarren bat salbatu du, ANNAri dirua kenduz eta gazteari itzuliz. Eta egin duena egin du hain zuzen ere jendea ahizpa zokoratzen hasia delako, ospe txarra hartu baitu bere zekentasuna dela eta.

FAMILIA

Hemen egunkariak dioenez,
Anna Baltimoren dago jadanik,
Eta haren inguruan gizon mota guztiak hiltzen dira tiroka.

Diru asko irabaziko du han,
Egunkariak hori diotenean.
Oso ondo dago hori! Horrek ospea ekartzen du
Eta gora egiten laguntzen dio neska bati.
Ez bada zekenegia,
Bestela ez da inor hartaz kezkatzen.

Bakarrik, ez bada zekenegia,
Bestela, hutsarte handia izango da haren inguruan.

Bere zekentasuna agerian uzten duenak
Hutsunea sorrarazten du inguruan.
Atzamarraz seinalatzen dute
Neurrigabeko zekena dena!
Esku batek jasotzen duenean,
Eman egin behar du besteak.
Jasotzea eta ematea, horixe gizabidea!
Neurria neurriaren,
Hori dio Legeak!

Horregatik espero dugu zuhurra izan dadila gure Anna,
Eta ez diezaiola jendeari azken atorra ere ken
Eta azken sosa.
Zekentasun hutsa errekomendazio txarra da.

7 – INBIDIA

Berrito ikusten da ANNA hiritzarra zeharkatzen; bidean beste ANNA BATZUK aurkitu ditu (ANNAREN maskara daramate dantzari guztiek), alferkeriara emanak, etab., hau da, debekaturik dituzten bekatu buruzagi guztiak egin ohi dituzte axolagabeki. Ballet batek “AZKENAK LEHENAK IZANGO DIRA” izeneko gaia antzezten du: beste Anna guztiak argitan harrotasunez mugitzen diren bitartean, ANNA II okerturik eta esfortzu eginez ari da arrastaka, baina gero gorantza hasi da, gero eta harrotasun gehiagorekin eta, azkenean, garaile gisa mugitzen da, beste Annak eroriaz doazen eta, sumisoki, pasatzeko tokia utzi behar dioten bitartean.

AHIZPEN ABESTIA

ANNA I

Eta bidaiaren azken hiria San Francisco izan zen.
Ondo atera zen dena, baina Anna maiz zegoen nekatuta eta inbidia zien
Egunak ezer egin gabe igaro zitzaizkiren guztiei.
Sobornaezina eta arranditsua,
Basakeria orok suminarazia,
Bere instintuetara emana, zoriontsua!
Soil-soilik maitatuaren maitalea,
Eta argiro onetsiz hark behar zuena!
Eta honela esaten nion ahizpa gaixoari
besteei inbidiaz begiratzen zienean:

“Ene ahizpa, aske jaio ginen guztiok
Eta argirantz abia gaitzke nahi izanez gero.
Burgoiturik doaz ergelak garaile gisa,
Baina ez dakite nora.

Ene ahizpa, jarrai zakizkit eta uko egiezu
Zeuk eta bestek irrikatu plazerei.
Utz itzazu jende tentelarentzat,
Amaieraren beldur ez diren horientzat!

Ez ezazu jan, ez edan eta ez alferkeriatan ibil.
Kontsidera ezazu maitasunaren gainean erortzen den zigorra.
Pentsatu zer izango zen zutaz, nahi duzuna egingo bazenu,
Ez ezazu erabili, ez ezazu xahu!
Ez ezazu gaztetetasuna xahu, iragaten ari baita!

Ene ahizpa, jarrai zakizkit eta uko egiezu
Zeuk eta bestek irrikatu plazerei.
Jarrai zakizkit, ahizpa, eta ikusiko duzu nola amaieran
Irtengo zaren garaile.
Baina, o, biraren izugarria!, han geratuko dira haiek,
Ezerezean dardarka, ate itxi baten aurrean”.

FAMILIA

Bere burua menderatzen duenak
Saria ere jasotzen du jarraian.

ANNA I

Luisianara itzuli ginen gero,
Mississippiko urak ilargipean jario diren lekura.
Zazpi urtez aritu ginen hirietan,
Zortetik lortu nahian.
Orain lortua dugu.
Orain hor da gure etxetxea, Luisianan.
Orain itzuli gara gure etxetxora
Mississippi ibaian, Luisianan.
Ez al da hala, Anna?

ANNA II

Bai, Anna.